

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ogasun eta Finantza Saila**

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 176/2021 FORU DEKRETUA, abenduaren 28koa, 2022ko lanaren etekinei pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketarako aplikatuko zaizkien atxikipen-ehunekoak aldatzen dituena.**

11/2020 Foru Dekretu Arauemailearen (abenduaren 1ekoa, COVID-19arekin lotutako luzapen-neurriei eta beste premiazko neurri batzuei buruzkoa) 9. artikuluko Bi apartatuaren bidez, eta bereziki COVID-19ak sortutako pandemiaren ondorioz lan-egoera ukituta izan duten zergadunen tributazioa ez zigortzeko, aitortzeko betebeharrari lotutako zenbait doikuntza egin dira, 2020ko eta 2021eko zergaldietarako, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan. Ondorioz, 12.000 eurotik 14.000 eurora igo da lan-etekin gordinak lortzeko ezarritako muga, zeinaren azpitik ez baitago aitortpena egiteko betebeharririk. Gainera, ordaintzaile batek baino gehiagok ordaindutako 14.000tik 20.000ra bitarteko euroko lan-etekin gordinak jasotzeagatik aitortpena egin behar duten zergadunak betebeharririk salbuetsita geratuko dira, baldin eta bigarren eta gainerako ordaintzaileek (zenbatekoaren arabera hurrenkeran) guztira ordaindutako kopuruen baturak 2.000 euroko kopurua gainditzen ez duene kasurako.

Orain, osasun-egoera horrek sortutako efektu kaltegarriak arintzeko helburu berarekin, neurri horren indarraldia luzatu da 2022. urtera, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2022. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren bidez; gainera, kontsumo-prezioen indizearen eboluzioaren arabera eguneratu dira likidazio-oinarri orokorrari aplikatu beharreko karga-eskalako tarteak, baterako tributazioaren ziozko murrizketa, kuotaren gutxitzea, eta norberaren eta familiaren kenkariak.

Azaldutako guztiagatik, Foru Dekretu honen xedea da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenen taula berria onestea, laneko errendimenduei aplikatzekoa 2022ko zerga-ekitaldia hastear dagoen honetan.

Adierazi behar da foru dekretu honen izapidetzea foru arau honetan xedatutakoaren arabera egin dela: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

**Artikulu bakarra. — Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia aldatzea**

Aldatu egingo dira apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiko 88. artikuluko 1. eta 4. zenbakiak, eta honela geratuko dira:

«1. Atxikipen-portzentajeen taula orokorra.

Urteko etekina Importe Rendimiento Anual (€)		Ondorengoen kopurua Número de descendientes						
Honetatik Desde	Honetara Hasta	0	1	2	3	4	5	Gehiago Mas
0,00	14.000,00	0	0	0	0	0	0	0



Urteko etekina Importe Rendimiento Anual (€)		Ondorengoen kopurua Número de descendientes						
Honetatik Desde	Honetara Hasta	0	1	2	3	4	5	Gehiago Mas
14.000,01	14.790,00	5	3	0	0	0	0	0
14.790,01	15.530,00	6	4	2	0	0	0	0
15.530,01	16.460,00	7	5	3	0	0	0	0
16.460,01	17.700,00	8	6	4	0	0	0	0
17.700,01	19.150,00	9	7	5	2	0	0	0
19.150,01	20.660,00	10	8	7	3	0	0	0
20.660,01	22.020,00	11	10	8	5	1	0	0
22.020,01	23.540,00	12	11	9	6	3	0	0
23.540,01	25.360,00	13	12	10	8	4	0	0
25.360,01	27.540,00	14	13	11	9	6	2	0
27.540,01	30.140,00	15	14	13	10	8	4	0
30.140,01	33.230,00	16	15	14	12	9	6	0
33.230,01	37.460,00	17	16	15	13	11	8	0
37.460,01	40.700,00	18	17	16	15	13	10	3
40.700,01	43.840,00	19	18	17	16	14	12	5
43.840,01	47.530,00	20	19	18	17	15	13	7
47.530,01	51.420,00	21	20	20	18	17	15	9
51.420,01	55.650,00	22	21	21	19	18	16	11
55.650,01	59.140,00	23	22	22	21	19	18	12
59.140,01	63.080,00	24	23	23	22	21	19	14
63.080,01	67.570,00	25	25	24	23	22	20	16
67.570,01	72.700,00	26	26	25	24	23	22	17
72.700,01	78.160,00	27	27	26	25	24	23	19
78.160,01	83.030,00	28	28	27	26	25	24	20
83.030,01	88.560,00	29	29	28	27	27	25	22
88.560,01	94.660,00	30	30	29	29	28	27	23
94.660,01	101.910,00	31	31	30	30	29	28	25
101.910,01	109.880,00	32	32	31	31	30	29	26
109.880,01	119.000,00	33	33	32	32	31	30	28
119.000,01	129.790,00	34	34	33	33	32	32	29
129.790,01	142.100,00	35	35	34	34	33	33	31
142.100,01	155.630,00	36	36	36	35	35	34	32
155.630,01	172.010,00	37	37	37	36	36	35	33
172.010,01	192.250,00	38	38	38	37	37	36	35
192.250,01	213.160,00	39	39	39	38	38	37	36
213.160,01	Hortik aurrera En adelante	40	40	40	39	39	39	37»

**«4. Langile aktibo desgaituak.**

Langile aktibo desgaituei artikuluko honetako 1. zenbakian atxikipen-portzentajeen taula orokorra aplikatuko zaie. Dena dela, taula orokorra aplikatuz ateratzen den atxikipen-portzentajeari hurrengo eskalan ageri diren puntuak kenduko zaizkio, langilea honako egoera hauetako batean badago:

- a) %33koa edo handiagoa eta %65ekoa baino txikiagoa den desgaitasun-gradua duten langile aktiboak.
- b) Desgaitasun-gradua %33koa edo handiagoa eta %65 baino txikiagoa izanik, mugitzeko gaitasuna murriztuta duten langile aktibo desgaituak. Langileok hala-kotzat joko dira, baldin eta desgaitasun-gradua aitortu, adierazi eta kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskinean agertzen den baremoko A, B eta C letretan adierazitako egoeretako batean badaude, edo baremo horretako D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen badituzte.
- c) %65ekoa edo handiagoa den desgaitasun-gradua duten langile aktiboak.

Urteko etekina Importe Rendimiento Anual (€)		Desgaitasun maila Grado de discapacidad	
Honetatik Desde	Honetara Hasta	4. a) atala Apartado 4. a)	4. b) eta 4.c) atalak Apartado 4. b) y Apartado 4.c)
0,01	23.540,00	9	12
23.540,01	30.140,00	7	12
30.140,01	43.840,00	6	10
43.840,01	51.420,00	5	10
51.420,01	72.700,00	4	8
72.700,01	109.880,00	3	6
109.880,01	172.010,00	2	5
172.010,01	Hortik aurrera En adelante	1	3»

**AZKENAK XEDAPENETAK****Azken Xedapenetako Lehenengoa. – Indarrean jartzea**

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

**Azken Xedapenetako Bigarrena. – Arauak emateko gaikuntza**

Ogasun eta Finantzen foru diputatuari ahalmena eman zaio foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bilbon, 2021eko abenduaren 28an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,  
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,  
UNAI REMENTERIA MAIZ